

2021eko URRIAREN 28an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA 10 zk.

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2021eko urriaren 28an, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Batzarburua Xabier Txurruka Fernandez jn.

Zinegotziak Miren Letamendia Belloso and.
Jesus Arana Gomez jn.
Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and.
Iban San Martin Hernandez jn.
Leire Arana Olabarrieta and.
Iker Basurko De Miguel jn.
Irene Urbietta Alberdi and.
Koldo Uribarri Zenekorta jn.
Itziar Murua Uria and.
Ion Arozena Eizagirre jn.
Mikel Goenaga Gubia jn.
Ainara Landa Argote and.
Begoña Olaizola Elordi and.
Xabier Etxaburu Elu jn.
Jesus Goikoetxea Balentziaga jn.
Eider Illarramendi Azkue and.
Gloria Vazquez Herranz and.
Patxi Elola Azpeitia jn.
Oihane Delgado Pita and.

Ez da etorri Ixidor Larrañaga Ayerbe jn.

Idazkaria Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Kontu-hartzailea Karmele Lizaso Ubera and.

Gai-zerrendan dauden gaiak aztertzen hasi aurretik, **alkate** jaunak horretara gonbidatuta, minutu bateko isilunea egin dute, urriaren 12an, Gasteizen, gertatutako emakumearen hilketa matxista gaitzesteko.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2021eko IRAILAREN 30eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211028&punto=1>

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2021eko irailaren 27tik urriaren 22ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211028&punto=2>

Segidan, Alkatezak 2021eko irailaren 27tik urriaren 22ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2021eko irailaren 27tik urriaren 18ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211028&punto=3>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko irailaren 27tik urriaren 18ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- INFORMAZIOA: FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ:

– 2021eko 3. hiruhilekoa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211028&punto=4>

Udalbatzak jakin berri du 2021eko hirugarren hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

5.- INFORMAZIOA: ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ:

– 2021eko 3. hiruhilekoa.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211028&punto=5>

Halaber, Udalbatzari jakitera eman zaio 2021eko bigarren hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

6.- 2020. URTEKO FINANTZA KONTROLEKO EKINTZA PLANAREN BERRI EMATEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211028&punto=6>

Udalbatzak 2020. urteko Finantza Kontrolerako Ekintza Planaren berri jaso du.

7.- KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRAREN OSAERA ALDATZEA.

Espedientea: 2016III0008

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211028&punto=7>

2016ko irailaren 29an egindako bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak erabaki zuen ZARAUZKO UDALEKO KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRA eratzea; arau hauek emandako funtzioak izango zituen: azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena (320. artikulua) eta maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen Legea (30/2007, urriaren 30ekoa) zati batean garatzen duena (21. eta hurrengo artikulua).

Era berean, aipatutako organoaren osaera eta funtzionamendu-arauak ere onartu zituen.

2017ko irailaren 28an egindako bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRAREN bileren aldizkakotasuna aldatzea eta hamabost egunetik behin egitea –hilabete bakoitzeko lehen eta hirugarren asteartetan–, eta onartutako gainerako funtzionamendu-arauak bere horretan mantentzea.

2018ko maiatzaren 31n egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen mahaia beste modu batean osatzea, 2018ko martxoaren 9an indarrean sartutako azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuenak, kontratazio-mahaiaren

funtzionamendu eta osaera berria arautzen zuelako, 326. artikuluan eta bigarren xedapen gehigarriaren 7. atalean.

Zarauzko Udaleko lizitazioak KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN plataformaren bidez kudeatzen direnez, ezinbestekoa da kontratazio-mahaiaren osaera berrantolatzea, bat etor daitezen Zarauzko Udaleko KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORreko kideak eta plataforman mahaia osatzeko eta eskaintzen irekiera egiteko baimenduta daudenak.

Hori guztia kontuan hartuta, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak aho batez

ERABAKI DU

KONTRATAZIO MAHAI IRAUNKORRA modu berri honetan osatzea:

Mahaiburua:

- Zarauzko Udaleko alkate udalburua
1. ordezkoa: Kontratazioko zinegotzia
 2. ordezkoa: 1. alkateordea

Mahaikideak:

1. kidea: Dagokion arloko zinegotzi arduraduna
Ordezkoa: Udal gobernuko beste zinegotzi bat
2. kidea: Udaleko idazkari nagusia
Ordezkoa: Zerbitzu juridikoetako administrazio orokorreko teknikaria (Ondarea, ondare erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena).
3. kidea: Udaleko kontu-hartzailea
Ordezkoa: Kontabilitate eta aurrekontuetako teknikaria
4. kidea: Herritarren arloko koordinatzailea
5. kidea: Lurralde arloko koordinatzailea

Idazkaria:

- Zerbitzu juridikoetako administrazio orokorreko teknikaria (Kontratazioa)
- Ordezkoa: Zerbitzu juridikoetako administrazio orokorreko teknikaria (Ondarea, ondare erantzukizuna eta zigortzeko ahalmena).

8.- EH BILDU eta PODEMOS-EQUO BERDEAK UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– ELA sindikatuaren idatzia aurkeztuz. Aritzatalde kiroldagiko BPXPORt enpresako langileen lan-baldintzak

Espedientea: 2021O0010008

•

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211028&punto=8>

Aztergai honetara iritsita, Idazkariak jakinarazi du EH BILDU eta PODEMOS-EQUO BERDEAK udal taldeen bozeramaileek adierazi dutela aurkeztutako mozioa erretiratu dutela.

9.- ESKARI-GALDERAK.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211028&punto=9>

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, arratsaldeko zazpiak eta zortzian; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

